

Sektoreak egiten duen Kontsumo Handiko topaketa batean

"Beste 50 supermerkatu eraldatuko ditugu 'zurekin' eredura 2018an", Rosa Carabel, EROSKI-ren Sare Komertzialeko zuzendari nagusia

- EROSKIren hegoaldeko eta erdialdeko hipermerkatuak eraldatzea ere lehentasunezkoa izango da datozen urteetan
- Denda propioak irekitzeko plan moderatu bat ari da lantzen kooperatiba, eta dozena erdi proiektutan dihardu gaur egun. Urte amaieran ikusiko dute argia
- Taldeak helburu gisa jarri du Kataluniako CAPRABO denda sarea pixkanaka birmoldatzea

Madril, 2018ko martxoaren 8a.- [EROSKI](#)ren Sare Komertzialeko zuzendari nagusia, Rosa Carabel, topaketa batean izan da gaur; Banaketaren sektoreak Madrilen egiten duen Kontsumo Handiaren topaketan, hain zuzen. Hitza hartu duenean, EROSKIren erronka berriez jardun da Carabel, nola datozen urteetan kooperatiba-taldearen sare komertziala osorik eraldatuko den.

"Gure asmoa da supermerkatu guztiak Zurekin eredura aldatzea, eta 2018an 50 birmoldaketa egingo ditugu; batez ere, Balearretan", esan du EROSKIren Sare komertzialeko zuzendariak. "Bestalde, erdialdeko eta hegoaldeko hipermerkatuak eraldatzen hasiko gara; dagoeneko, lau daude eginak —Albacetekoa, Tarragonakoa, Elxekoa eta Melillakoa—, eta gero eta bizkorrago birmoldatuko ditugu gainerakoak. Horrez gain, beste asmo bat darabilkigu datozen urteetan, Kataluniako CAPRABO dendak birmoldatzea eta belaunaldi berriko denda sare bat osatzea; denda erakargarriagoak eta hobeto defendatuko direnak ingurune lehiakorrean".

Sare komertziala eraldatzearekin batera, Carabelek esan du denda propioak irekitzeko plan moderatu bat ere martxan ipini dutela; batez ere, Espainiaren iparraldeko komunitateetan. *"Iaz, hiru supermerkatu ireki genituen, eta gaur egun, dozena erdi proiektu ditugu, urte amaieran beteko direnak", iragarri du Sare Komertzialeko zuzendariak.*

Denda frankiziatuen hedapen plana

EROSKI jarraitzen du denda frankiziatuen hedapen plana sustatzen —200 metro koadrotatik 5.000ra bitartekoak dira denda horiek—, eta, hala berean, RAPID

EROSKI

Komunikazio Korporatiboko zuzendaria
XURDANA FERNANDEZ

Tel: 946 211 214

comunicacion@eroski.es

EROSKI – PRENTSA BULEGOA

CONSEJEROS DEL NORTE

JOANA G. LANDAZABAL
EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

[Online prentsa aretoa](#)

izeneko komenentziazko denda eredu berriak ari da bultzatzen Katalunian eta Balearretan. Carabelek indar berezia ipini du frankizietako taldeen eta Talde propioaren arteko ezagutzaren transferentzian. *"2015ean, EROSKIren lehen hipermerkatua frankiziatu genuen Tarragonan, eta eskarmentu handia atera dugu hortik. Oso salmenta onak izan ditugu, eta, bi urteren buruan, 2017an, Melillakoa frankiziatu genuen. Urtarril honetan, berriz, Elxeko frankiziatu dugu. Gaur egun, zenbait dossier aztertzen ari gara, hipermerkatu gehiago frankiziatzeko"*, esan du Rosa Carabelek.

Arreta nabarmendua, eta Zurekin kluba

EROSKIrentzat lehentasunezkoa da, Zurekin eremuan, bezeroarekin duen harremana, eta harreman horrek izaera berezia ematen dio ereduari. *"Orain gehiago ari gara kontsumitzaileari begira, zeinak lehentasuna ematen baitio erosketa esperientziari, eta horregatik ipini behar dira langileak, gure ustez, freskoen atalean"*, esan du Rosa Carabelek. *"Alde horretatik, langileen gaitasun profesionala eta prestakuntza etengabe landu behar dira; gure zutabeetako bat hori da, freskoen arloan are eta espezialistagoak izateko"*.

EROSKI Clubek nabarmen hobetu du bezeroarekin genuen harremana. *"EROSKI Clubek piztu egin du kooperatibaren Bezero Bazkide figura, eta, horri esker, Bezero Bazkideak erabakien erdigunean jartzeko moduan gara"*, azaldu du Rosa Carabelek. Kooperatibak martxan jarri dituen berrikuntza proiektuen harira, EROSKI programa aurrendari bat atera du orain berriki EROSKI Cluben Urrezko txartel berriarekin: %4ko aurrezpen finko eta unibertsala, bere saltokietan egindako erosketa guztietan, baita gasolindegi sarean ere erregaia erostean. Bezero Bazkideek saldo eran ikusiko dute aurrezpen hori, EROSKI Club txartelean, ondoko erosketetan erabiltzeko.

Joera multikanala

EROSKI proposamen multikanala lantzen ari da, bezeroari erantzuteko berak nahi duenean, berak nahi duen bezala eta berak nahi duen lekuan. Horretarako, denda formatuak eta kanal digitalak ugaritzen ari da. *"Orain urtebete ez dela, EROSKIren aplikazio gaurkotua aurkeztu genuen, erabiltzaileentzat erosoagoa izan dadin bere funtzionaltasunak erabiltzea. Eta on line supermerkatua lehen baino bizkorragoa eta efizienteagoa da; horren harira, urte amaieran saria eman ziguten, Online Supermerkatuak Onenarena"*, gogorarazi zu EROSKIren Sare Komertzialeko zuzendariak.

EROSKI

Komunikazio Korporatiboko zuzendaria
XURDANA FERNANDEZ

Tel: 946 211 214

comunicacion@eroski.es

EROSKI – PRENTSA BULEGOA CONSEJEROS DEL NORTE

JOANA G. LANDAZABAL
EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

[Online prentsa aretoa](#)